


# Informazio eta bigilantzia sistemak Osasun Publikoan: ikertuko al dugu?

**EKAINAK 13 - 14**

Hitzaldi aretoa. Irakaskuntzako pabiloia. Nafarroako Ospitale Unibertsitarioa

Osasun Zientziak

Gaztelaniaz

Kredituak: 0,5

30 ikaspostu

15 €

10 ordu

Hospital Universitario de Navarra

Bukatuta, Concluido

2024ko ekainaren 10a arte

Aretoa irisgarria da mugikortasun urria duten pertsonentzat. Irisgarritasun premiarik baduzu, idatzi cursosdeverano@unavarra.es helbide elektronikora.

Osasuneko informazio sistemak funtsezko elementuak dira gure antolaketaren errealitatearen eta herritarrek, profesionalek eta osasun sistema osatzen duten osasun administrazioek planteatzen dituzten eskaeren ondoriozko egungo eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko.
Osasun publikoko informazio sistema baliabide teknikoen eta giza baliabideen sistema antolatua da, eta, haren bidez, osasun publikoaren lehentasunekin lotutako informazioa identifikatu, bildu, prozesatu, aztertu eta zabaldu egiten da.
Informazio sistema horrek hiru ardatz nagusi ditu: bigilantzia, monitorizazioa eta ikerkuntza.
Hori dela eta, ikastaro honen helburua eskura dauden osasun informazioko sistemen ikuspegi orokorra ematea da, baita epidemiologiaren eta osasun publikoaren esparruan ikerkuntzarako erabil daitezkeenena ere.
Gainera, haien bidez, posible izanen da osasun publikoko arazo nagusiak identifikatzea, informazioaren kudeaketaren eta fluxuaren ezaugarriak ezagutzea eta ikerkuntzan duten eragina identifikatzea, osasun publikoan bigilantzia sistemak hobetzeko eta erabakiak hartzeko xedez.
Ikastaroan sinposio bat eginen da, eta, han, osasun arloko informazio sistemekin lotutako zenbait komunikazio aurkeztuko dira, junior ikertzaile bidalitakoen artetik hautatuak.
Sinposio horretan parte hartu nahi duten junior ikertzaileek beren GALaren, MALaren, espezialitate amaierako lanaren edo doktoretza-tesiaren (lehenbiziko faseen) laburpen bat bidali beharko dute posta elektronikoz docencia.epi.ispln@navarra.es helbidera, 2024ko maiatzaren 31ra arte, honako informazio honekin:

(1) mezuaren gaia: "JUNIOR IKERTZAILEEN SINPOSIOA";

(2) lanaren laburpena erantsia (300 hitz gehienez);

(3) lanaren egilearen eta haren tutorearen eta/edo zuzendariaren datuak.

Jasotako komunikazio guztien artean, ikastaroaren zuzendaritzak 10 aukeratuko ditu sinposio horretan ahoz azaltzeko, 10 minutuan gehienez, galderetarako denbora barne. Saria emanen zaio komunikaziorik hoberenari, eta 2 accesit banatuko dira. Ikastaroaren bukaeran iragarriko dira saridunak.

## NORENTZAT

Ekitaldi hau jende guztiarentzat da, batez ere osasunaren arloko profesional eta ikertzaileentzat, baita esparru soziosanitarioko ikasleentzat (gradukoak, masterrekoak, osasun espezialitatekoak edo doktoretzakoak) eta irakasleentzat ere.

## HELBURUAK

Eskura dauden osasun informazioko sistemen ikuspegi bat ematea eta haiek osasun arloko ikerkuntzan erabiltzea da ikastaro honen helburua.

## IKASTAROAREN ZUZENDARIA

Iván Martínez Baz doktorea, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Estatistika, Informatika eta Matematika Saileko irakasle elkartua eta IdiSNA Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko Miguel Servet ikertzailea.

Esther Vicente Cemboráin doktorea, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Osasun Zientzien Saileko irakasle elkartua eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko Gaixotasun Arraroen Nafarroako Biztanleen Erregistroko teknikaria.

## OSTEGUNA 13 EKAINA

09:00 - 09:30 Ikastaroari hasiera ematea

**Ikastaroaren inaugurazioa eta aurkezpena**

Begoña Pérez Eransus, NUPeko Unibertsitate Proiekzioko, Kulturako eta Dibulgazioko errektoreordea.

María Ángeles Nuin Villanueva, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko zuzendari kudeatzailea (NOPLOI).
Esther Vicente Cemborain (NUP-NOPLOI), ikastaroaren zuzendarikidea.

Iván Martínez Baz (NUP-NOPLOI), ikastaroaren zuzendaria.

09:30 - 10:15  Hitzaldia

**Informazio sistemak Osasun Publikoan**

Guillermo Ezpeleta Lobato, Epidemiologiaren eta Osasun Prebentzioaren Zerbitzua (NOPLOI).

10:15 - 11:00  Hitzaldia

**Gaixotasun infekziosoen bigilantzia epidemiologikotik ikerketara**

Iván Martínez Baz (NUP), Gaixotasun Transmitigarrien eta Txertaketen Atala (NOPLOI).

11:00 - 11:30  Kafea hartzeko etenaldia

11:30 - 12:15  Hitzaldia

**Biztanleriaren erregistroak eta gaixotasun kronikoen ikerketa**

Esther Vicente Cemboráin (NUP), Populazio Erregistroen Atala (NOPLOI).

12:15 - 13:00  Hitzaldia

**BIFAPen bidezko ikerketa: eremu publikoko ikerketarako datu-baseak**

Juan Erviti López (NUP), Berrikuntza eta Antolakuntza Atala, Osasunbidea – Nafarroako Osasun Zerbitzua.

13:00 - 13:45  Mahai-ingurua

Modera: Eva Ardanaz Aicua, erregistro eta informazio sistemetako aditua.

**Bigilantzia Osasun Publikoan eta ikerketa**

Lehenagoko hizlari berak.

13:45 - 14:00  Etenaldia

14:00 - 15:00  Sinposioa

Modera: Iván Martínez Baz eta Esther Vicente Cemboráin (NUP-NOPLOI).

**Informazio sistemak osasunean: ikertzaile gazteen esperientzia**

Junior ikertzaileek bidalitakoen artetik hautatutako 10 komunikazioen aurkezpena

**OSTIRALA 14 EKAINA**

09:00 - 09:45  Hitzaldia

**Informazio sistemek eta epidemiologiak etorkizuneko osasun publikoan duten eginkizuna**

Pello Latasa Zamalloa, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila.

09:45 - 10:30  Hitzaldia

**Desparekotasunak osasunean eta osasun zerbitzuen erabileran: bizitza errealeko datuak aztertzeko aukerak**

Isabel Aguilar Palacio, Aragoiko Osasun Zerbitzuetako Ikerketa Taldea, Zaragozako Unibertsitatea.

10:30 - 11:00  Mahai-ingurua

Modera: Iván Martínez Baz, UPNA-ISPLN

**Epidemiologiaren eta osasun publikoaren etorkizuna**

Lehenagoko hizlari berak: Pello Latasa Zamalloa eta Isabel Aguilar Palacio.

11:00 - 11:30  Kafea hartzeko etenaldia

11:30 - 12:30  Mahai-ingurua

Modera: Esther Vicente Cemboráin (NUP-NOPLOI).

**Lankidetzako esperientziak Osasun Publikoan**

Estrella Miqueleiz Autor (LIFE NAdapta-NOPLOI). Osasun Publikoko teknikaria.

Natividad Viguria Sánchez (Nafarroako Ospitale Unibertsitarioa, Osasunbidea). Pediatriako BFE.

Montserrat de la Fuente Hurtado (Arreta Soziosanitarioa, Osasunbidea). Gizarte-langilea.

Anchel Reyes Garreta (Osasun Publikoaren Behatokia, NOPLOI). Soziologoa.

12:30 - 13:00  Ikastaroa bukatzeko ekitaldia

**Sinposioko sarien banaketa eta udako ikastaroaren amaiera**

Iván Martínez Baz (NUP-NOPLOI).

Esther Vicente Cemboráin (NUP-NOPLOI).

## ANTOLATZAILEA

Nafarroako Unibertsitate Publikoa

## BESTE ANTOLATZAILE BATZUK

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua

Instituto de Salud Pública y Laboral de Navarra
Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua
AGENDA 2030

upna
Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

## LAGUNTZAILEA

Nafarroako Gobernua

## FINANTZATZAILEA

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua

© Universidad Pública de Navarra